BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2639

AGINDUA, 2012ko maiatzaren 8koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, EGAren Azterketa Batzorde Ofizialaren zuzendaria kargutik kentzea xedatzen duena.

1982ko irailaren 20ko Aginduaren (1982ko azaroaren 8ko EHAA) 36. eta 37. artikuluei jarraituz, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Joseba Butron Jauregi jauna, berak hala eskatuta, EGAren Azterketa Batzorde Ofizialaren zuzendari kargutik kentzea.

2. artikulua.– Urteotan egindako zerbitzuengatik Joseba Butron Jauregi jaunari eskerrak ematea.

3. artikulua.– Agindu hau 2012ko uztailaren 31n jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 8a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.